Osakidetza

DONOSTIA OSPITALEA
HOSPITAL DONOSTIA

**DONOSTIA OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEAREN 677/2011 EBAZPENA, OTSAILAREN 4KOA, LEHIAKETAREN BIDEZ GINEKOLOGIAKO ATALBURU LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEN DUENA.**

<u>FUNTZIOAK</u>:
Ginekologiako zerbitzu medikoaren buruaren esanetara, ondorengoez arduratuko da:

- Ginekologia Orokorreko Atalean helburuak proposatu eta horiek lortzeko ekimenak kudeatzeaz.
- Zerbitzuko beste unitateekin, Donostia Ospitaleko beste zerbitzuekin eta eskualdeko beste ospitaleekin jarduerak koordinatzeaz.
- Ginekologia Orokorreko Ataleko Ospitale barneko errekurtsoak antolatzeaz ondorengo arloetan: kontsultak, ospitalizazioa eta diagnostiko prozedurak (baita programazio kirurgikoa ere).
- Ginekologia eta Obstetrizia arloei dagokien arreta urgentearen asistentzia antolatzeaz.
- Ginekologia eta Obstetrizia arloan ospitalez kanpoko asistentzia antolatzeaz.
- Mediku egoiliarrentzat alor honi dagozkion prestakuntza planetan parte hartzeaz, eta Unitatean irakaskuntza garatzeaz BAME zerbitzuaren programaren baitan.

<u>BALDINTZAK</u>: (Agiriak aurkeztu beharko dira)
1. Obstetrizia eta Ginekologiako fakultatibo mediko espezialista (A1) lanpostua Osakidetzako zerbitzu-erakunde batean jabetzan edukitzea edo lanbide-talde berean Osasun Sistema Nazionalaren erakundeetan estatutupeko langile finkoa izatea.
2. Gutxienez 3 urteko esperientzia Obstetrizia eta Ginekologiako mediku espezialista lanetan.

<u>BALORATUKO DENA</u>:
1. Ginekologia eta Obstetriziako zerbitzu baten kudeaketa-proiektua aurkeztea epaimahaiaren aurrean: <u>40 puntu gehienez</u>.
2. Kudeaketa arloko prestakuntza: <u>15 puntu gehienez</u>.
3. Lan-esperientzia: <u>25 puntu gehienez</u>.
4. Lanbide-garapeneko maila: <u>10 puntu gehienez</u>.
5. Euskararen ezagutza: <u>10 puntu gehienez</u>

Baremoak honako bi araudion arabera aplikatuko dira: 1) Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren 1153/1996 Ebazpena, abenduaren 2koa, Osakidetzako zerbitzu erakunde sanitarioetako atalburu lanpostuak betetzeko deialdia arautu zuena; 2) 2003ko martxoaren 18an onetsitako euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikulua.

<u>ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKU ETA EPEA</u>:
Interesdunek honako dokumentazioa aurkeztu behar dute Donostia Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzan (Ama-haurren eraikina, -2. solairuan) iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita 15 egun baliodunetan: 1) eskabide-orria, datu pertsonal guztiak ondo beteta; 2) curriculum vitaea eta egiaztatu beharreko agiriak; 3) antolamendu eta kudeaketari buruzko proiektua.

<u>HAUTAKETA PROZESUA</u>:
Hautaketa egiteko, epaimahaia osatuko da. Ospitaleko Zuzendari gerentea (edo haren ordezkoa) epaimahaiburua izango da, eta epaimahaikideak honakoak: zuzendari Medikoa, Pertsonaleko zuzendaria, Ginekologiako eta obstetriziako zerbitzuburu bat, Pertsonaleko teknikari bat (idazkari-lanak egiteko).

RESOLUCION Nº 677/2011, DE, DEL DIRECTOR GERENTE DEL HOSPITAL DONOSTIA, POR LA QUE SE HACE PUBLICA LA CONVOCATORIA PARA LA PROVISION MEDIANTE EL SISTEMA DE CONCURSO DEL PUESTO DE JEFE DE SECCION DE GINECOLOGIA.

<u>SE OCUPARÁ DE</u>:
En dependencia del Jefe de Servicio de Ginecología y Obstetricia, se responsabilizará directamente de:

- Proponer los objetivos y gestionar las actividades encaminadas a conseguirlos en la Sección de Ginecología General.
- Coordinar sus actividades con otras unidades del servicio, otros servicios del Hospital Donostia y con los Hospitales Comarcales.
- Organizar los recursos intrahospitalarios para la atención en consultas, hospitalización y procedimientos diagnósticos y terapéuticos (incluyendo la programación quirúrgica) en la Sección de Ginecología General.
- Organizar la asistencia relacionada con la atención urgente en el ámbito de la Ginecología y la Obstetricia.
- Organizar la asistencia extrahospitalaria en el ámbito de la ginecología y Obstetricia.
- Participar en los planes de formación de esta área, para los médicos residentes y desarrollar esta docencia en su Unidad, dentro del conjunto del programa de formación MIR del Servicio.

<u>REQUISITOS</u>: (Se deberán acreditar documentalmente)
1. Tener plaza en propiedad en cualquier Centro de Osakidetza o ser personal estatutario fijo en las Instituciones Sanitarias del Sistema Nacional de Salud, en el Grupo Profesional A1 (Fac. Esp. Médico en Obstetricia y Ginecología)
2. Experiencia mínima de 3 años en el desempeño de funciones como Facultativo Especialista Médico en Obstetricia y Ginecología.

<u>SE VALORARÁ</u>:
1. Proyecto de Gestión en un Servicio de Ginecología y Obstetricia y su presentación ante el tribunal, <u>hasta un máximo de 40 puntos.</u>
2. Formación en gestión, <u>hasta un máximo de 15 puntos</u>.
3. Experiencia profesional, <u>hasta un máximo de 25 puntos</u>
4. Nivel de carrera profesional, <u>hasta un máximo de 10 puntos.</u>
5. Nivel de conocimiento de euskera, <u>hasta un máximo de 10 puntos.</u>

La aplicación del baremo se adecuará a la Resolución 1153/1996, de 2 de diciembre, del Director General de Osakidetza, por la que se convoca concurso para la provisión de puestos de Jefe de Sección en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza, y en el art. 24 del Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera.

<u>LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN</u>:
Los/as interesados/as deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales y acompañada de "curriculum vitae" (documentado), siendo imprescindible la presentación de un proyecto de organización y gestión a la Dirección de Personal del Hospital Donostia (Edificio Materno-infantil, planta -2), finalizando el plazo de 15 días hábiles a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

<u>PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN</u>:
Se constituirá un Tribunal presidido por el Director Gerente o persona en quien delegue, e integrado por el Director Médico, Director de Personal, un Jefe de Servicio de Ginecología y Obstetricia, un Técnico de Personal que actuará como Secretario.

Begiristain Pasealekua, z.g. - 20014 - Donostia-Gipuzkoa
Paseo del Dr. Begiristain, s/n - 20014 - San Sebastián-Guipúzcoa
Tel. 943 007 000 - Fax: 943 007 233 - www.hospitaldonostia.org

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

Epaimahaiak deialdian finkatutako baremoen arabera baloratuko du hautagaien dokumentazioa, eta, beharrezko iritziz gero, elkarrizketa batera dei dezake hautagairen bat. Behin balorazioa egin eta gero, aukeratutako izangaiaren izendapenerako proposamena egingo da, beharrezko izendapena egin ahal izateko. Hautagai batek ere deialdiko baldintzak betetzen ez baditu, epaimahaiak bete gabe utz dezake lanpostua.

El Tribunal valorará la documentación aportada por los interesados en base al baremo publicado, pudiendo acordar la realización de una entrevista personal con aquellos candidatos que lo estime oportuno. Efectuada la valoración y a la vista de la misma se elevará propuesta de nombramiento a fin de formalizar el oportuno nombramiento. El Tribunal podrá declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

**EBAZPEN HONEN KONTRAKO HELEGITEAK:**
Ebazpen honen kontra, gorako helegitea aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

RECURSOS CONTRA LA PRESENTE RESOLUCIÓN:
Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Donostian, 2011ko azaroaren 25ean

San Sebastián, 25 de noviembre de 2011

Osakidetza
Carlos ZULUETA GURIDI
DONOSTIA OSPITALEA
HOSPITAL DONOSTIA
ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE

ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI-TAULETAN ARGITARATUA DATA HONEKIN: 2011/11/28
PARA SU PUBLICACION EN LOS TABLONES DE ANUNCOS DE TODOS LOS CENTROS, EL DIA: 28/11/2011

**Begiristain Pasealekua, z.g. - 20014 - Donostia-Gipuzkoa**
Paseo del Dr. Begiristain, s/n - 20014 - San Sebastián-Guipúzcoa
Tel. 943 007 000 - Fax: 943 007 233 - www.hospitaldonostia.org